



Lopez eta Elola gazteak kalean, 10.000 euroko fidantza ordaindu ostean


LEITZA ▶

Erreka bideratzeko lanak hasiko dituzte aurki

Nafarroako Gobernuak diru laguntza eman du ▶ 5

TOLOSALDEA ▶ Fidantzapeko espetxeratzea ezarri die epaileak

PROTESTAK ▶ Ehunka herritar atera dira kalera bi gazteen alde ▶ 4



'Hyde Park-eko hizlaria', Joxemari Iturraldere azken narrazio luzea

TOLOSA ▶ Sei urteko lana izan da idazle tolosarrarentzat: *Hyde Park-eko hizlaria* liburua da emaitza. Atzo aurkeztu zuen Donostian bere azken narrazio luzea eta «gozatu» egin duela azaldu du, izan ere, «literatura ikasbidea da niretzat». Pamiela argitaletxeak Durangoko Azokara eramango duen berrikuntza da liburua. Istorioak Leo du protagonista eta bere bizitzaren berri ematen du, Frankismo garaian. ESTI EZEIZA ▶ 2

ALTZO ▶

Tecasako langileek «ixteko erabakia» gogor salatu dute

Zuzendaritzari argudioak eskatu dizkiote «kalean utziko baikaituzte» ▶ 3

ZOS
soinu ikastaroa
Informatika musikala (Cubase)
Grabaketa eta masterizazio profesionalak
P.A. eta monitoriak
Eta aber
943 65 35 35
www.sointek.net

GAUR Zinema Etxean 2
Tangorik
8 DVD euskaraz
berria
+ 4,50 €
Sarekoak
SAI LABRAL
EUSKARAREN HITZA
Aukera ezazu, bizi euskaraz berria

NESTOR ARDANAZ
ESTUDIO
eskrainza berria • ezkontzetan
Nestor Ardanaz dantza orkestra
943 65 22 28 • 626 78 21 00

KULTURA ▶

Joxemari Iturraldearen azken narrazio luzea kalean da jadanik

'Hyde Park-eko hizlaria' izenburupean aurkeztu zuen atzo idazleak, Frankismo garaian kokatutako eleberria

ESTI EZEIZA

Sei urteko lanaren ondoren atzo aurkeztu zuen Joxemari Iturralde bere azken liburua: *Hyde Park-eko hizlaria*. Idazlearen esanetan, «literatura niretzat ikasbidea da, eta liburu hau idazteko garaian gozatu egin dut». Bere azken narrazio luzea 2000. urtean kaleratu zuen, *Euliak ez dira argazkietan ateratzen* izenburupean. Iturralderi gauzak kontatzea gustatzen zaio, eta horren adibide da liburu hau, istorio bat bestearen barnean sartzen baitu.

Iturralde bere nobela guztietan egiturari harreta berezia eskaintzen dio, baita hizkuntzari ere. Bere ustetan, «nobela ahozkoa da, nahiko korala», hau da, hizkuntza eta estilo ulerkerria erabiltzen du. Bere idazle hastapenetan erabiltzen zuen euskara landu eta jasoa, urteekin leuntzen joan dela azaldu zuen tolosarrak.

Hyde Park-eko hizlaria lanak denboraren aurkako borroka isladatzen du. Bi ideia ageri dira bertan, lehenengoa, idazleari asko gustatzen zaion gai bat da: «adinean aurrera goaz, eta edozein pertsona joaten denean, zer geratzen da beste gizartean pertsona horrekin? Normalean ezer ez, aztura dator. Hala ere pertsona bat oso garrantzitsua da, mundu bat da bere txikitasunean. Halaber, bizitzan zehar, hainbat jende eta istorio ezagutu ditugu, eta hauek desagertuz joaten dira». Jorrazten duen bigarren ideia ondorengoa da: zer-



Joxemari Iturralde atzo, aurkezpenaren ondoren. E. EZEIZA

gatik aurre egin denboran zehar desagertzen doazenei?. Idazle tolosarraren arabera «dena elementu binarioz lotua dago, alde batetik, desagertze ar dagoen mundu bat dago, eta bestetik, frankismoko garai ilunak alde batera utzi nahi dituen gazte koadrila bat dago. Bi munduk topo egiten dute eta hortik sortuko dira ondorio batzuk.

Frankismo garaian kokatua

Pamiela argitaletxeak Durangoko Azokara eramango duen berritasunetako bat izango da eleberri hau. Istorio honek geruza ugari ditu, eta azalean istorio nagusi bat ageri bada ere, iradokizun asko sortzen dituzten beste hainbat kapa ere baditu. Kontakizun nagusi a Frankismo garaian kokatua dago. Hemen, Leo protagonistak

JOXEMARI ITURRALDE IDAZLEA

«Literatura niretzat ikasbidea da, eta liburu hau idazteko garaian patxadan aritu naiz eta gozatu egin dut»

(adin batera heldu den euskaldun erbesteratua) bere bizitzaren berri emateko erabakia hartuko du, eta horrela, Londreseko Hyde-Park-en bere istorioa hasiko zaie kontzertu igandero, maleta baten gainera igota, inguratzen zaizkion entzule guztiei. kasualitatez, ikasle euskaldun batzuekin egingo du topo Leok parkean, eta honek kontakutako istorioek eragin oso zuzena izango dute Londresen erdi galduta dabilzan gazte horiengan.

KULTURA ▶

La Goleta de la Azotearen *La gallina churra* obra izan zen atzo. E. E.

Txotxongiloak azken txanpara iritsi dira

Gaur lau antzerki talde izango dira taula gainean, eta bihar amaituko da jaialdia

E. EZEIZA

Aurrera jarraitzen du 24. Nazioarteko Txotxongiloen Jaialdiak. Gaurkoan ere helduentzako nahiz haurrentzako hainbat saio izango dira egunean zehar.

Goizeko saio bakarra Murrtziako (Espainia) Periferia Teatrotan eskutik izango da. Hauek *Pocosueño* emanaldia eskainiko dute. Antzezlan honekin, haurrei beraien amets-gaiztoak gainditzen erakutsi nahi diete. Bestalde, bizitzan aurkezten zaizkien erronkak konpontzen joateko hauraren gaitasuna frogatzen du. Antzezlan hau 12:00etan eta 17:00etan Kultur Etxean izango da ikusgai.

Leidor antzokian 17:00etan eta 20:00etan izango dira emanaldiak. Hemen *Titiriteros de Binéfar* Aragoiko (Espainia) antzerki taldea izango da, *El hombre cigüeña* eskaintzeko. Publiko guztiei zuzendutako lan honek 31 urte beteko ditu aurten. Urte guzti hauetan panpinekin kalean, plazetan, antzokietan, karpe-

tan, pabilioietan eta milaka leku desberdinetan ikusi ahal izan da Paco Paricioaren istorio hau.

Txekiar Errepublika ordezkatuz Naive The. Liberec antzerki taldea izango da Ferialekuan 18:30etik aurrera. Hauek, *El caballero sin sombrero* obra taularatu dute. Antzerki talde hau 1949an eratu zen eta Txekoslovakia zaharreko txotxongilo antzerki profesionalerako bat izan zen.

Biharko azken emanaldia 21:00etan izango da Tolosako Kasinon. Hau, helduentzako emanaldia izango da eta Euskal Herriko Gus Marionetas taldeak antzeztuko du. *La inauguración* musika protagonista duen ikuskizun bat da. Harridura hari gidari gisa eta irudimena argumentu gisa erabiltzeko emanaldiak. Hemen *Titiriteros de Binéfar* Aragoiko (Espainia) antzerki taldea izango da, *El hombre cigüeña* eskaintzeko. Publiko guztiei zuzendutako lan honek 31 urte beteko ditu aurten. Urte guzti hauetan panpinekin kalean, plazetan, antzokietan, karpe-

hilberria ▶

JOSEFA LASA BARRENETXEA

Itziar Agirreurreta lankidearen ama

*Une latz hauetan
bat egiten dugu
famiaren saminarekin*

ETXERAINO

hilberria ▶

Jesus Mari Arruabarrena Ansa



Isiltasunean murgildurik joan zinen gure artetik betiko bakea ta zoriona heldu da zure barrenean ez zaitugu inoiz ahaztuko gure bihotz barren-barrenean eramango zaitugu betirako



Arruabarrena Ansa sendiak

OIARTZUN, 2006ko abenduaren 2an

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

ALTZO ▶ EKONOMIA

Tecasako langileek «Mustad fabrika ixteko erabakia» salatu dute argudioak eskatuz

Paper lantegia ixtearen erabakiarekin «47 langile eta beraien familiak utziko ditu kalean»; enpresak prozedura konkurtsala, likidazio eskaerarekin eskatu du



Langileek prentsaurrekoa egin aurretik kontzentrazioa egin zuten Triangulo plazan. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Tecasa S.A. enpresa komiteak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo eguerdian Tolosako Triangulo plazan. Altzon dagoen kartoi ondulatorako materiala fabrikatzen duen enpresako «egoera latza» salatu nahi izan zuten, CCOO, ELA eta LAB sindikatuen izenean.

Tecasa-Mustad enpresak «ixtea eskatu du»: honen ondorio zuzena 47 langile kalera-tzearena izango litzateke, «gehi hauen familiak».

Tecasa S.A.ko Zuzendaritza Zuzenaren 20ean eskatu zuen konkursoa eta Merkataritza Epaitegiko Autoa, konkursoa zordunarentzako borondatezko aitortzen duena, 2006ko urriaren 30ekoa.

Tecasa enpresako langileek honen aurrean hainbat puntu eman zituzten ezagutzera, salaketaren oinarriak argituz: aurreko kudeatzaileari dagokionez, «Osvaldo Gabriel D'Anna Piombo Jauna, maiatzan bukatu egin zuten: Mustad taldea da azken urteotan Tecasarekiko erabateko desatentzioagatik erantzunkizuna duena». Langileen arabera, «Mustad enpresako Administrazio Kontseiluari informazioa jakin ondoren ere, ez dugu inoiz erantzunik jaso».

Bigarrenik, «estalitako deslokalizazio bat edukitzeko aukera». Duela ia bi urte Argentinarako «zaticakako deslokalizazio bat» gauzatu zen, «sekretismo handiz». Handik urte erdira, ordea, Mustadeko

Administrazio Kontseiluko Lehendakariak onartu zuen deslokalizazioa «erabatekoa izango zela 4 edo 5 urteren buruan».

Kudeaketaren «gezur, iluntasun eta gardentasunik eza» ere salatu zuten langileek. Honek langileen mesfidantza areagotu du eta emandako argumentuak ez dituzte sinesten. Langile taldeak «baitaki, enpresaren gaurko egoera ekonomikoak positibo jarraitzen duela».

Konpromisorik ez

Azkenik, Mustad taldeak Tolosaldeko «inguru sozial eta ekonomikoarekiko adierazitako konpromisorik eza» salatu zuten. Izan ere, «irabazi handiak

lortu ditu enpresak hemen». Langileek gogora ekarri zuten 1989. urtean enpresak jasan-dako galera. Orduan «instituzioen mesedeak izan zituen: Gizarte Segurantzaren eta Hogasunarekin zuten 2.000 milioi pezeta baino gehiagoko zorra barkatzeko orduan». Horrez gain, gogora ekarri zuten ere «Mustad zegoen orubea urbanistikoki birkalifikatu zutela».

Dirua badela sinesteko hainbat arrazoi dituzte: 1990. urtean itxi egin zuten, «pezetarik jarri gabe eta irabazi handiak lortu zituen bere orubea urbano kalifikatu zutelako». Geroago, Tecasa izenarekin ireki zuten, hain zuzen, diru laguntzak jaso ditu eta urtean zehar irabazi handiak lortu ditu».

Horregatik langileek ez dute «istearren arrazoirik ulertzen», eta erabakia salatu nahi izan dute.

Deialdi berezia

Honen aurrean deialdi bat ere zabaldu zuten Tolosako Triangulo egindako prentsaurrekoan: zehazki, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiari eta Udalarari. «Euskal industriaren etorkizuna bermatuko duen politika industrial eta ekonomiko baten defentsan eta lanpostuak mantentzearen defentsan neurriak bidertatu dituzten».

Egoeraren «darritasuna» ikusita, egindako kontzentrazioaren ondoren beste deialdi edo elkarteratze gehiago egingo dituztela adierazi zuten, bide batez, hara joan ziren guztiei eskertuz.

ORENDAIN ▶

Auñamendi diaporametan ikusteko aukera

Uemako Kultur Elejiraren barnean Kultur Batzordeak diaporamak jarriko ditu bihar Orendainen eta denak mendiekin lotutakoak izango dira. Gema Arrugaetaren eskutik Auñamendi: Euskal Herriaren bizkarrezurra diaporama saioak ikusi ahal izango dira. Biher, 12:45ean izango da, beraz, Orendaingo udaletxean dagoen areto nagusian.

EUSKARA ▶

Etzi Alegiko udaletxean Bai Euskarari bilera

Etzi Alegiko udaletxean 19:00etan, Bai Euskarari taldeak bilera berezi baterako deitu du. Bertan, euskararen alde egin nahi duen edozeinek hartu ahal izango du parte. Euskararekin loturrik dauden ekintzetan —Korrika, Euskara Festa, Euskara Eguna...— kudeaketa, antolatzea, nahiz ideiak jasoko dituzte. Bertara Alegialdeko interesa eta euskararen alde lan egin nahi duen edozein joan daiteke.

POLITIKA ▶

Auto karabana Alegialdean bihar egingo dute

Autodeterminazio taldeak bihar goizerako autodeterminazioaren aldeko auto karabana antolatu du. 11:30ean Ikaztegiatiko kiroldegiko aparkalekuan bilduko dira autoekin, handik Alegia, Altzo, Amezketa, Abaltzisketa eta Orendaineraino iristeko. Orendainen bertan bazkaria egiteko asmoa dute partaideek. Deialdi hau irekia da.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Pisua Laskorain 3, kalean.
Salgai (Tolosa), Iteapaindegi egokituia lurren.
Salgai (Tolosa), Bolardenda, kale Nagusian, negozioa martxan.
Salgai (Tolosako lurren).
Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal txikia. Oso modu onean.
Salgai (Tolosa), Lokalak Enperadore kalean eta kale nagusian.
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak ibarran.
Salgai (Tolosa), Garajeak, Leidor azpian.
Salgai (Tolosa), Pisua lurre auzoan.
Salgai (Tolosa), Pisua Gososabel kalean.
Alokatzeko, Garajeak, Araba etorbidean eta Batxiller Zaldibian (geltoki ondoan).
Alokatzeko, Lokalak, Arbol de Gemikan, Allin eta Laskorain kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

POLITIKA ▶

Haritz Lopez eta Eneko Elola kalean, fidantza ordainduta

Espainiako Auzitegi Nazionalak 10.000 euroko fidantzapeko espetxeratzea ezarri die «sute, indarkeria, mehatxu terroristak eta atentatuak» egotzita



150 lagun inguruk Tolosako Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituzten, abiloketak salatuz. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Iragan asteazkenean atxilotu zituzten Eneko Elola alegiarrari eta Haritz Lopez tolosarrari 10.000 euroko fidantzapeko espetxeratzea ezarri diete Madrilgo Auzitegi Nazionalan, herenegun deklaratu ostean. 21:30ak aldera, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO erre-dakzioa itxita zegoela, jakitera eman zuten epailearen erabakia. Hala, eta ezarritako diru kopurua ordaindu ostean, kalean dira bi gazteak eta atzo heldu ziren euren jaioterria. Hauek 10.000 euroko fidantza

GALDEKETA

«Oso orokorra» izan da eta Bilboko istiluetan udaltzain bati su eman izanari buruzko galderarik ez zuten egin

ordaindu behar izan dute. Gas-teizen atxilotu zuten Olatz Urbina 7.000 euroko fidantza ordaindu behar izan du; aldiz, Haritz Diaz de Durana eta Mikel Ruizek espetxeratze agindua jaso dute.

Gazteen senideek azaldu dutenez, galdeketa «oso orokorra» izan zen eta fiskalaren jarraera «oso gogorra» izan zen. Bilboko udaltzain bati su ematen saiatu izanaren gainean ez zen galderarik egin; bai, ordea, «kutzazainen erreketan» parte hartu ote zuten. Bost gazteek pasa den azaroaren 10ean Bilbon izandako istiluetan parte hartu izana ukatu zuten. Haatik, Teresa Palacios epaileak fiskaltzaren eskaera onartu eta kartzelaratzera ezarri zien guzitei. Atxiloketa hauek Bilboko epaile baten kritiken ondorioz jazo ziren. Hori dela eta, Ertzaintzak bere izapideak egin zituen eta Lakuako barne kontseilari Javier Balzak esan zuenaren arabera, «atxiloketek argi uzten dute kritika horiek ez dutela zentzurik».

Bizilagunen protestak

Alegian eta Tolosan, bi gazteen askatasuna eskatzeko manifestazioak eta konzentrazioak egin dituzte. Alegian, herenegun iluntzean, 130 pertsona inguru bildu ziren plazan *Eneko eta Haritz askatu* lelopean. Atzokoan, berriz, Tolosa izan zuten gune protestek. Bertan, 150 lagun inguru izan ziren. *Hau al da zuen bakea eta Ezin izan duzue, ezin izango duzue bezalako oihuak entzun ahal izan ziren manifestazioan zehar*. Ibilbidea «aldatu behar» izan zuten bertaratuek, ertzainak aurrean ikusita. Arratsaldean ere Tolosako Gazte Mugimenduak deituta, konzentra-



Alegian ere herenegun ehunka lagun bildu ziren. N. URBIZU

Argi eta egoki idazteko, oinarritzko tresna

ESTILO LIBURUA

ZURE LIBURU DENDAN 25 €

berria

ESTILO LIBURUA

Harpidedunentzako eskaintza berezia: 20 €

Eskariak egiteko Tel.: 943 30 43 45 harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

ELEKTRIZITATEA

MENDIA

Euskal Herria, 27 IBARRA

Tel. 943 67 32 80

MENDIA

Tolosa GOURMET

Txuleta-ren festa

Harriak: 943 69 74 13

tour@tolosaldea.net

TOLOSANAKO UDALEKUA

IBARRA

EUSKADI

Afariak: abenduak 6, 7, 8 eta 9; Sarriako-ordategia: 20:00 - 22:00

Darrikariak: abenduak 9 eta 10; Sarriako-ordategia: 13:30 - 15:00

Lekua: Zerkanoa

LEITZA ▶ KIROLA

Aurrerak bihar etxean partida garrantzitsua jokatuko du

Universidad Publicaren aurka irabaziz gero, hurrengo fasera pasako dira leitzarrek; bigarren faseko lehen neurketa da eta hilaren 6an atsedena dute

NAIARA GARZIA

Universidad Publica de Navarra taldearen aurka jokatuko du Aurrerak bihar, hilaren 3an, futbol talde honen kontrako bigarren bueltan. Lehenengo buelta urriaren 12an jokatu zuten bi taldeek, eta leitzarrek irabazi zuten gol batengatik. Aurrerako arduradunek azaldu duten bezala, «atera beharreko partida da biharkoa. Hurrengo fasera pasatzeko bi puntu falta zaizkigu, eta irabaziz gero pasatu egingo ginatke. Orduan falta diren beste bi partidak tramite hutsa lirateke». Universidad Publica de Navarra ez da oso arerio arrisurtsua. Aurreko astean 9 taldeetatik 6. bazihoan ere, azkenean asteburuan deskantsua izan duenez, orain 7. doa.

Aurrera, aurreko astean San Cristobalen aurka galdu ondoren, bigarren da sailkapen orrokorrean 30 punturekin. Urriaren 8an jokatu zuten lehenengo buelta eta leitzarrek 2-3 galdu zuten. Joan den igandean Berriozarren jokatutako norgehiagoka gogor xamarra izandu zela esan dute Aurrerako arduradunek, «aurreneko postua jokuan zela nab aritzen zen». Berriozarko publikoan bere taldearen gainean egon zen erabatean, eta jokalariei dagokienez, sarrera fuertek egin zituzten, behar baino indartsuago jokatuz eta tarteka ukondokoren bat emanez. Joku

honen ondorioz Unai Olano izartean lesionatu zuten.

Biharko partida irabaziz gero, beraz, Aurrera hurrengo fasera pasako litzateke: talde bakoitzeko (6 talde dira) lehenengo hirurak elkartu eta beste liga bat eratuko dute. Beraz, 18 futbol talderen artean jokatuko da beste liga hori. Irabaz-

len duena, iparraldeko preferenteko ligara igoko da zuzenean.

Jardunaldia

Asteburu honetan Aurrera eta Universidad Publica de Navarra arteko partida jokatzeaz gain, ondorengo beste talde

hauen norgehiagokak ere jokatuko dira: C.D. Ardoi-C.D. San Ignacio, C.D. Lezkairu-Rematxa - S.D. Alsasua eta C.D. San Cristobal-Beti Kozkor K.E. C.D. Etxarri Aranazek deskantsua izanen du bihar.

Asteazkenean, berriz, abenduaren 6an, Aurrerak atsedena hartuko du.



euskaltel
ZURETZAT

- Zuntz Optikoa
- Finkoa+TB+Banda Zabala
- Mugikorra

Birsortzen ari gara beti. Aurrera egiten, aurrerapausoak behin eta berriz ematen. Egutero, pauso oro, mugimendu oro, beti aurrerantz. Horrelakoak izan gara beti. Gure irudi berria da. Zuretzat. Kontua ez da zertarako egiten dugun aurrera, norentzat baizik.

LEITZA ▶

'La buena nueva' filmerako jendea behar dute

2007ko udaberrian Helena Taberna zuzendariaren hurrengo pelikula filmatuko da, *La buena nueva*. Filma grabatzeko Leitza eta inguruneak aukeratu dituztenez, pelikulan parte hartzeko deialdia zabaldu dute Lamia producciones-etik. Adin guztietako jendea behar dute, figurazio moduan pelikulan parte hartzeko. Datorren abenduaren 11n, astelehenearekin, kasting bat antolatuko dute udaletxean. Bertan izanen dira goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00etara.

LEITZA ▶

Leitzako korua Altsasun izanen da bihar

Nafarroaren Eguna ospatzeko, urtero bezala Nafarroko abesbatzak haien festa propioa egiten dute, izan ere, ferretuta dauden abesbatza guztiek kontzertua eman beharra daukate eta horretarako herri batetik bestera mugituko dira. Koru bakoitzari egokitzen zaion herria zoketa bitartez aukeratzen dute eta Leitzari Altsasura joatea egokitu zaio. Asketa Txiki eta Asketa Gazte abesbatzak izanen dira bertan, eta emanaldia elkarrekin kantatutako abestien hasi eta amaitu arren, bakarka ere abestuko dute.

LEITZA ▶

Euskararen Eguna atzeratu egin dute

Asteartean, hil honen 5ean, Leitzako eskolan euskararen alde ospatu behar zuten festa oraingoz bertan behera uztea erabaki dute ikasleek, jakitera eman dutenez. Urtero bezala, abenduaren 22an beste festa bat egiten dute eta aurrerago ospatuko dute Euskararen Eguna. Oraindik ez dute datarik jarri, beraz, astearterako antolatuta zuden ekitaldiak ikusteko —jokuak, zoketa, pintxo-lehiaketa...— itxaron egin behar da. Institutoko Guraso Elkartetik azaldu duten bezala, «denbora falta eta esaminak» izan dira Euskararen Eguna atzeratzearen arrazoi nagusiak.

LEITZA ▶ AZPIEGITURAK

Gazpillozuloko erreka bideratzeko lanak laister hasiko dituzte

Nafarroako Gobernuak larrialdietarako lana bezala izendatu eta diru laguntza eman du

N. GARZIA

Aurreko astean euriaren ondorioz ezbehar ugari gertatu ziren errotondaren inguruko hainbat bajeatan. Martxoan

berria egin arte, aste honetan Nafarroako Gobernu Lan Publikoekin zuzendariarekin bildu da alkatea, Patxi Saenz, larrialdiko obra bezala izendatu eta honela diru laguntza jasotzeko.



Urak gainezka egin zuen errotonda inguruan. NAIARA GARZIA

«Nafarroako gobernuak baiezia eman du eta momentuz helburu nagusia azpitik pasatzen den erreka bideratzea da». Obra honek duen lehentasunarengatik, Udalaren asma

lehenbailehen amaitzea da, hau da, gabonetarako, aurreko astean gertatutakoa berriro gerta ez dadin. rreko astean gertatutakoa berriro gerta ez dadin.

EUSKARAREN EGUNA ▶

MADDI SOROA

Hizkuntza bat ez da gal-
tzen ez dakitenez ikas-
ten ez dutelako, dakite-
nek hitz egiten ez dutelako bai-
zik». Aski ezaguna da J.A.
Artzeren esaldi zaharra. Ez
zaio arrazoirik falta gainera,
euskara ez baillizateke deus
izango euskal hiztunak izango
ez balitu. Euskarak merezi du,
ordea, euskaldun izateak me-
rezi duen bezala. Hala erakutsi
dute gainera eskualdeko hain-
bat ikastetxek.

Bihar Euskararen Eguna iza-
nik, hainbat ekitaldi izan ziren
atzokoan eskualdeko hainbat
ikastetxetan. Ibarra, Villabona
Irura, Zizurkil, Anoeta eta Tolo-
sako ikastetxeak euskararen
alde agertu ziren jolas artean.

Ibarrakoek, *Wazemank* tele-
saileko aktore den Jon Iraola-
ren bisita izan zuten eta ikasle-
ek, antzerki esketxak eskaini
zizkieten. Hirukide ikastetxeak
adinaren arabera ekitaldiak
burutu zituen. Hala, txikienek
Xabil maskota izan zuten lagun
eta gaztetxoek artean, jaialdia,
euskal jolasak edota herri ki-
rolak izan ziren. Iruratarrek
marrazten aritu ondoren ipuin
lehiaketako sariak jaso zituzten.
Ondoren, plazan gantuan
aritu ziren eta honi gantain ja-
teak jarraitu zion.

Kantuan ibili ziren Anoetako
ikasleak ere eta ondoren,
Arantxa Iturberen bisita jaso-
tzearekin bat bideo emanaldia
eta ipuin lehiaketako sariak
jaso zituzten. Villabonan herri
kiroletan aritu ziren goizean,
txokolatada egin zuten, berriz,
arratsaldean. Eta azkenik zi-
zurkildarrek haur eta guraso-
entzat jolasak izan zituzten
frontoian trikitiaren musikaz
lagundurik.

Hamaika herri, hamaika
ekintza baina helburu bakarra
izan zuten denek, euskara mai-
tatuz, euskararen erabilera
bultzatzea beronen normaliza-
zioa lortzeko.

Gogoratu, bihar izango dela
Euskararen Eguna.

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Etxeko lanak
egiteko eta 2 haur zaintzeko
neska euskalduna behar da
Ibarran. 600 45 40 80.

SALGAI

Furgoneta. Wolsvagen Caravell.
NA-AD, zortzirentzako tokia.
2.400 diesela. 600 26 69 28.
Autoa. Bmw M3a. Urdina, 286
zaldi, 1995 urtekoa. 153.000km
liburuarekin. 18ko llantak eta
tebxua. Egoera oso onean.
14.000 euro. 943 65 41 43

Eskualdea euskararen alde

Tolosaldeko hainbat herritako ikastetxek hamaika ekitaldiren bitartez
bihar izango den Euskararen Eguna ospatu dute ikastoletan giro ederrean



Irura. Irurako ikastolako haurrak gantain jatean. M.SOROA



Villabona. Txokolatada izan zen guztientzat Villabonako plazan. M.S.



Zizurkil. Haur eta gurasoak jolasean aritu ziren frontoian. M.SOROA



Ibarra. Jon Iraolaren bisita jaso zuten Uzturpeko ikasleek. M.SOROA



Anoeta. Ipuin Lehiaketako sariak banatu zituzten unean. M.SOROA



Hirukide. Adin guztietako ikasleek hartu dute parte. HITZA

MIKEL ARRUABARRENA ▶ XEREZ TALDEKO JOKALARIA

LEIRE MONTES

Tenerifen (Kanariar Uharteak) partida jokatzetik Xerezarako (Andaluzia, Espainia) bidean harrapatu du Mikel Arruabarrena (Tolosa, 1983) TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Osasunak utzita, hango taldean (Espainiako Ligako 2. Maila) ari da. Elkarrizketarako proposamena segituan onartu eta hurrengo egunerako egin dute hitzordua. Entrenamendua amaituta hartu du orain telefonoa, adeitsu eta jator. Hango berri kontatu eta, era berean, hemengoagatik galdetzen du. Herri mina du, eta etxekoen eta lagunaren falta sumatzen du.

Tolosa, Bilbao Athletic, Osasuna B, Xerez. Bizitzak buelta asko ematen omen ditu...

Futboleko jokatzeko aukera ematen didaten lekuan izango naiz. Osasunako jokalaria naiz, bi urteko kontratua sinatu nuen haiekin, 2006-07 eta 07-08 denboraldietarako. Haiekin dut fitxa, baina Xerez utzita ari naiz denboraldi honetan.

Noiz jakin zenuen futbolari profesionala izan nahi zenuela?

Gaztetatik nire ametsa 1. Mailan jokatzeko izan da. Futbola gustuko duten gazte gehienek desioa da hori, ez? Nik, behintzat, oso argi izan dut beti.

Zer emateko prest zaude?

Egin beharreko guztia egingo dut futboleko jarraitzeko. Horregatik nago gogoa lekuan, etxetik 1.000tik gora kilometro-ra, nire herritik eta nire jendearengandik hain urrun. Sakrifizio handia da, baina merezi du. Ez dut etxean ezer egin gabe geratu nahi izan. Borrokatzen eta lanean jarraitu nahi izan dut. Ez baitut ulertzen nire bizia futbolari gabe.

Ari al zara hara moldatzen?

Jendea oso abegitsua da, eta oso ondo sentiarazi naute hasieratik. Baina hau benetan gogorra da. Pisu batean bizi naiz. Oso bakarrik sentitzen naiz; inguruan ez dut euskaldunik, eta etxekoak, nire jendea, nire herria, oso urrutia daude. Haiek utzitako hutsunea da gehien nabaritzen dudana. Gainera, gure egutegiagatik ezin dut Tolosara bueltatu nahi nukeen hainbestetan, eta hangoentzat ere zaila da etortzea. Ezagutzen dudan jendea taldearen ingurukoa da; gehienek beraien bizimoduarekin dute, eta zaila da koadrila bat osatzea. Dena den, jendea oso irekia da, eta pixkanaka ari naiz ohitzen. Hori bai, ziur nago hemen ez naizela geldituko. «Hemen ederki bizi gara; ikusiko duzu, denboraldia amaitzean geratu nahiko duzu», diote. Argi dut ezetz. Nire herria eta nire jendea han dago, ni hangoa naiz.

«Gogor borrokatu behar da beti, gauza onekin gelditu, ikasi eta aurrera egin»

Osasunak utzita, Xerez ari da jokatzeko denboraldi honetan Mikel Arruabarrena, 23 urteko aurrelari tolosarra



IMANOL GARCIA

Zer da Xerezetik gehien harritu zaituena?

Jendeak futbola nola bizitzen duen. Denak gara ezagunak, eta kaletik jende guztiak argutu egiten zaitu. Han Realeko jokalariekin pasatzen dena pasatzen da hemen gurekin.

Zer gustatzen zaizu gehien?

Klima, eguraldia, zeru urdina, kaleko giroa...

Eta gubdien?

Ez dakit gustuko ez dudana, edo ohitzea kostatzen ari zaidan... Jendea oso irekia da, askotan ere zaila da etortzea. Ezagutzen dudan jendea taldearen ingurukoa da; gehienek beraien bizimoduarekin dute, eta zaila da koadrila bat osatzea. Dena den, jendea oso irekia da, eta pixkanaka ari naiz ohitzen. Hori bai, ziur nago hemen ez naizela geldituko. «Hemen ederki bizi gara; ikusiko duzu, denboraldia amaitzean geratu nahiko duzu», diote. Argi dut ezetz. Nire herria eta nire jendea han dago, ni hangoa naiz.

Hori da gehien desberdintzen gaituena, izakera?

Zalantzarik gabe. Haiek ere kontratatzen dira. Esaten duten bezala, «zomo ma exau p'alan-

te» [dio, barrez, andaluziarren azentua imitatuz].

Zer diote euskaldunei buruz?

Gustatzen gaitzaizkie. Langiletzat gaituzte, errespetu handiko pertsonatzat, zintzotzat. Euskalduna izateagatik ez dut inongo arazorik izan. Bestek bezala tratatzen naute, errespetuz. Zaleak ere oso ondo portatzen ari dira nirekin.

Pozik izango dituzue, lider jarraitzen baituzue.

Zale eskertuak ditugu. 10.000 lagunetik gora joaten da askotan gure partidak ikustera [14.000 bazkide baino gehiago ditu taldeak, eta Chapin estadioak 20.500 lagun hartzeko lekua]. Dena den, aurten kostatzen ari zaigu jendea erakartzea. Aurreko bizpahiru denboraldietan taldeak ere primeran ekin zion Ligari, baina gero bidean geratu zen. Horregatik, jendeak ez du konfidantza osoa guran, zuhur jokatzeko ari da. Emaiztak, dena den, ari dira laguntzen: 14 partidetatik 8 ira-

bazi ditugu, 5 berdindu eta 1 galdu, eta egun liderrak gara.

Helburua, 1. maila?

Aurreko urtetako eskarmen-tuagatik, taldeak ez du helbururik jarri nahi izan, eta partidatik partidara goaz. Baina, noski, helburu hori ez da sekula ahaztu behar.

Zuk jarri al duzu jomugarik?

Ikasten jarraitu nahi dut. Ahal den minutu gehien jokatu, esperientzia hartu eta denboraldi trukuna egin.

Oraingoz izan duzu aukera apur bat jokatzeko, ezta?

Zaila dago hemen jokatzeko. Berria naiz, kanpotik etorri naiz... 2. Mailan izen handia duen jendea dago taldean eta, gainera, nire postuan. Baina ez naiz kezkatzen. Ligan 4 jardunalditan izan naiz titular, eta 14 partidetatik 11tan aritu naiz. Kopan ere 2 aldiz jokatu dut titular. Pepe Murcia entrenatzaileak asko laguntzen dit, eta aldagelako giro onak ere motibatu egiten nau. Pozik nago, bai.

EUSKALDUNAK

«Gustatzen gaitzaizkie. Langiletzat jotzen gaituzte, errespetu handiko pertsonatzat, zintzotzat»

HELBURUA

«Ikasten segi nahi dut. Ahal den minutu gehien jokatu, esperientzia hartu eta denboraldi trukuna egin»

FITXA ▶



Xerezekin gola ospatzen. HITZA

Izena. Mikel Arruabarrena Aranbide.

Jaioteguna. 1983/02/09.

Jaioterria. Tolosa.

Taldeak. Tolosa, Bilbao Athletic (6 denboraldi), Osasuna B (1), Xerez (1; Osasunak utzita).

Postua. Aurrelaria.

Talde bat. Euskal taldeak.

Zelai bat. San Mames.

Jokalaritza. Zinedine Zidane.

Nork emango dizkizue buruhauste gehien Ligan?

Murtziak. Aurkari gogorra da.

1. Mailara begira, nola ikusten dituzu euskal taldeak?

Egia esan, ez oso ondo. Athletic eta Osasuna aterako direla uste dut. Realak da zalantza handienak sortzen dizkidana. Konfidantza falta zaiela uste dut, eta zuloan sartzen zarenean psikologikoki oso gogorra da. 1. Mailako jokalariek dituzte, 1. Mailako taldea da; baina orain presioa bikoitza da, eta hainbeste partiduko galdu eta gero zaila da horri aurre egitea.

Nork irabaziko du Liga?

Real Madril eta Bartzelona ikusten ditut favorito. Sevilla ere bikain ari da, baina ez dut uste bukaerara arte halaxe iritsiko denik.

Zure esperientziatik abiatuta, zer esango zenioke hasiberri bati?

Ilusioa ez dela sekula galdu behar. Futbolari baten ibilbidea ez da bukatzen talde batek alde egiterakoan. Zauden lekuan zaudela gogor borrokatu behar duzu, gauza onekin gelditu, ikasi eta ikasi, eta aurrera egin.



AGENDA ▶

24. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

Tolosa. Gaurko egitaraua: Leidor antzokian, Aragoiko (Espainia), Titiriteros de binefar taldearen *El hombre cigüena*, 17:00etan eta 20:00etan. Kultur Etxean, Murtziako (Espainia) Periferia teatro taldearen, *Pocosueño* lana, 12:00etan eta 17:00etan. Ferialekuan, Txekiar Errepublikako Naive the Librec taldearen *El Caballero sin cabeza* izeneko antzezla, 18:30etik aurrera. Helduentzako saioen baitan, Kasinon, Gus Marionetas taldearen *Navarra: La inauguración* antzezla 21:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Alegia. Abenduaren 10era arte Pilarxo Elosegi margolariaren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai. Asteartetik igandera bitarte izango dira ikusgai, tabernako ordutegi bera izanik. Astelehenetan taberna ibita.

Alegia. Azaro Kulturalaren baitan, argazki erakusketa berezia ezarri dute: David Apreak prestatutako *idi probak* izeneko erakusketa izango da ikusgai, Alegiko Kultur eta Kirol Etxean, abenduaren 5era arte (asteartea).

Tolosa. Bihar arte, *Iberiar leihoa* izeneko txotxongiloen erakusketa ikusgai Aranburu jauregian, 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren baitan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.

Tolosa. Ollarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM) 11:00-14:00. *Hitzak hegana.*

Goiko irrattia (107.0 FM) 12:00. *kornera.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Tolosa jokoan DVD-a 10 euro balio ditu eta salgai da dagoeneko. N. U.



Tribial tradizionalaren irudia hartu dute oinarri. N. URBIZU

'Gazten' joko ezaguna gurean

TOLOSA ▶ Herriari buruzko 750 galdera biltzen dituen Tribial aurkeztu dute DVD formatuan; «historian arakatzea eta etorkizunera begiratzea» dira asmoak



Atzo aurkeztu zuten jokoak Jokin Bildarratzek eta eta Gurutze Zubeldiak. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Zergatik ospatzen ditugu inauteriak? Zein da Tolosako jauregi zaharrena? Hauek eta horrelako beste 750 galdera bitxi bildu dituzte *Tolosa jokoan* izeneko tribial jokoan, zeinean herritarrek herriari buruz dituen jakintzan neurtuko diren. DVD formatuan aurkeztu zuten atzokoan, Errota haur liburutegian, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek eta 750 Fundazioko arduradun Gurutze Zubeldiak.

Kirolak, historia eta artea, kultura eta jaiak dira jokoak jorratzen dituzten gaiak eta helburua «historian arakatzea eta aldi berean, etorkizunari begiratzea» dela azaldu zuen alkateak. Familia artean egiteko jokoak da eta Samaniego, Hiruki eta Laskoraingo ikastetxeek ere hartu dute parte, iradokizunetan.

AGURRAK ▶

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarta

3KI. 3CLUBS ENI
Hiruki • Triángulo
LARUNBATETAN, SALA 31 N

INAUGURAZIOA!
ABENDUAREN ZAH, LARUNBATA
ZUZENEAN
BETAGARRI

SALA 31 • LEKUNBERRI INDUSTRIALDEA Z/G • 31870 LEKUNBERRI - NAFARROA • WWW.3CLUBSEN1.COM • WWW.SALA31.COM